

14/15

irizpena

Dopinaren aurkako legeria Dopinaren
Aurkako Munduko Kodeari egokitzeari
buruzko

Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2015ko irailaren 25an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I.- SARRERA

2015eko uztailaren 27an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Herri Administrazioa eta Justizia Sailaren idazkia sartu zen; idazki horren bidez *“Dopinaren aurkako legeria Dopinaren Aurkako Munduko Kodeari egokitzeari buruzko Legearen Aurreproiektuari”* buruzko txostena eskatu zuen, hau da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legeko 3.1. artikuluan ezarri dena betez.

Kontsultatu zaigun legegintzako ekimenaren helburu nagusia indarrean dagoen dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren Aurkako Munduko Kodeari egokitzea da. Halaber, Lege hau Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzaren Batzordearen Erabakiaren edukiari egokitzen zaio kirolean dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legeari dagokionez eta, aldi berean, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia aintzatesten da Euskal Autonomia Erkidegoan dopinaren aurka borrokatzen duen antolakuntza moduan.

Batzordeko Osoko Bilkurako kideei berehala igorri zitzaizen agiriaren kopia horri buruzko euren proposamenak eta iritzia igortzearen eta ostean bidezko Lan Batzordean aurkeztearen ondoretarako, hau da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarri denarekin bat.

2015eko irailaren 21ean Gizartearen Garapeneko Batzordea bildu zen eta hartu ziren erabakietatik abiatuta Irizpen Proiektu hau formulatu zen irailaren 25eko Batzordearen Osoko Bilkurari aurkezteko, eta bertan aho batez onetsi da.

II.- EDUKIA

“Dopinaren aurkako legeria Dopinaren Aurkako Munduko Kodeari egokitzeari buruzko Legearen Aurreproiektuak” zioen azalpena, 12/2012 Legeko xedapen batzuk aldatzen dituen artikulua bakarra, 2 xedapen iragankor eta amaietako xedapen bat ditu.

Zioen azalpenean azaltzen da 2013ko azaroan Dopinaren Aurkako Munduko IV. Konferentzia egin zela Johannesburgon, Hegoafrikan. Konferentzia horretan kirol antolakuntzetako eta estatuetakoko eskuordek hartu zuten parte eta Dopinaren Aurkako Munduko Kode berria onetsi zen. Kode hori 2015eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Kode berriak ezarri dituen aldaketa nagusien artean ondoko hauek aipa daitezke:

- Dopinaren arloko arau-hausteen tipifikazioan Kode berriak indarrean dagoen 2009. urteko arau-haustek mantendu dira, baina zigortu egiten diren jarrera eta jokaera berriak gehitzen dira.
- Aukera moduan ezarri da lagin biologikoak Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren egiaztapenik ez duten, baina bai onespena, laborategietan azter daitezkeela.
- Zehapenak aldatu dira, baina nabarmen gehitzen dira etendura aldiak.
- Dopinaren Aurkako Munduko Kode berriak 10 urteko preskripzio-epe berria ezarri du.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoak derrigorrez aldatu behar du dopinaren aurkako indarreko ekainaren 21eko 12/2012 Legea Kode horretan ezarri denari egokituz.

Halaber 12/2012 Lege honen aldarazpena aprobetxatu da Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia aintzatesteko. Agentzia hau kirolaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako bidezko organoari atxiki zitzaion Legearen 10. artikuluan euskal administrazio publikoari agintzen zaizkion funtzioak garatzearen ardura duen organo espezializatu moduan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dopinaren aurkako antolakuntza moduan jardungo du.

Azkenik, testuak Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzaren Batzordearen Erabakiaren edukia inkorporatzen du kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2012 Legeari dagokionez.

Aurreproiektuko artikulua bakarrak 12/2012 Legeko ondoko artikulua hauek aldatzen ditu:

1. 10. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eskumenak.
2. 12 artikulua. Dopin-kontrolak egiteko betebeharra duten kirolariak.
3. 13 artikulua. Kontrolen bermeak eta legezko ondorioak.
4. 16 artikulua. Dopin-kontrolak eta osasun-kontrolak.
5. 18 artikulua. Kontrolak egiteko eskumena.
6. 19 artikulua. Kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrendaren publikizitatea.
7. 21 artikulua. Administrazio-zehapenen araubidearen aplikazio-eremua.
8. 22.bis artikulua berria. Behin-behineko etendura.
9. 23 artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.
10. 24 artikulua. Zehapenak kirolariei.
11. 24.bis artikulua berria. Zehapenak arau-hauste asko egiteagatik.
12. 29 artikulua. Isunak ezartzea.
13. 30 artikulua. Arau-haustearen ondorio gehigarriak eta emaitzak aldaraztea
14. 31.bis artikulua berria. Estatusa lizentzia eten den bitartean.
15. 34 artikulua. Arau-haustek eta zehapenak preskribatzea.
16. 36 artikulua. Administrazio-zehapenen arloko eskumena.
17. 37 artikulua. Diziiplina-prozeduren alorreko eskumena.
18. 38.bis artikulua berria. Zehapenen zabalkuntza.
19. 38.ter artikulua berria. Dopinaren alorreko ebazpenen berrikuspena.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Eusko Legebiltzarrak kirolaren aurkako dopinari buruzko berriazko lehen legea onetsi zuen 2012. urtean (12/2012 Legea, ekainaren 21ekoa, kiroleko dopinaren aurkakoa), eta horrekin

Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko dopinaren arloko xedapenak garatu ziren eta gure Erkidegoari kirolean debekatuta dauden substantzien aurka borrokatzeko marko juridikoa zuzkitu zitzaion, hau da, Dopinaren Aurkako Munduko Kodearekin eta Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Konbentzioarekin bat. Lege horrek kirolean berariaz baliotsua dena babesten laguntzen du, hots, “pertsona bakoitzaren berezko talentuen hobekuntzaren bidez gizakiaren bikaintasuna bilatzea”¹, eta dopinak zuzenean egiten du esentzia horren aurka.

Izan ere ildo bereko irizpena eman genuen aipatu den dopinaren aurkako Legearen aurreproiektuari buruzko gure 10/2011 Irizpenean; orduan azpimarratu genuen kirola interes publikoko gizarte-jarduera dela eta horren bidez pertsonak prestatu eta garatzeaz gain, bizikaltatea hobetu eta banakako nahiz gizartearen ongizatea bultzatzen dela eta dopinak balore eta oinarri horien antinomia sinbolizatzen duela eta, ondorioz, borrokatu egin behar dela.

Kasu honetan Legearen aurreproiektuari buruzko iritzia eskatu zaigu 12/2012 Legea Dopinaren Aurkako Munduko Kode berriari egokitzearen ondoretarako; hori ez ezik, xedea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzaren Batzordearen arloari buruzko oraintsuko Erabakiari egokitzea eta Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia Euskal Autonomia Erkidegoan dopinaren aurkako antolakuntza moduan aintzatestea da.

Dopinaren Aurkako Munduko Kode berria joan den 2015eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean eta berrikuntza garrantzitsuak ezarri zituen dopinaren arloko zehapenen tipifikazioan, eta baita etendura aldietan eta preskripzioan ere. Ildo honetatik adierazi nahi dugu lege aurreproiektua une egokian etorri dela beharrezkoa delako arauen egokitzapena egitea eta, kontuan hartuta Kodearen aldarazpen nagusiak proposatu zaigun testuaren barruan sartu direla, era positiboan baloratu dugu.

Halaber, azpimarratu nahi dugu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Aholkularitza Juridikoak arauaren zirriborroari dagokionez jaulki duen txotenean egin dituen iruzkinak egokiak direla oso eta bat egiten dugula horiekin, eta uste dugu aintzat hartu beharko lirakeela.

Beste alde batetik, Legearen izpirituarekin bat eginda, gogorarazi nahi dugu kiroleko dopinaren aurkako borroka era integralean ulertu behar dela, prebentziozko neurrien garrantzia aintzatetsiz. Arautegiak, dopinaren praktika erregulatu ez ezik, berariaz zaindu eta garatu behar du ikerketa, sentiberatzea, prestakuntza eta erakunde profesional eta pertsona kirolariei kirol etekina hobetzeko erabiltzen diren substantzia eta metodo guztiek osasunean izan ditzaketen eraginei buruzko informazioa.

Azkenik, argi utzi nahi dugu aurreproiektuaren idazkuntzan lengoaiaren erabilera ez sexista egin dela generoaren ikuspegia aintzat hartuta, eta berdintasunari buruzko 4/2005 Lege honen praktika onen eta betetzearen eredu hau beti erabili beharko litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko arauak egiterakoan.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

Zioen azalpeneko hirugarren paragrafoa adierazten den era honetan proposatzea:

1. Dopinaren Aurkako Munduko Kodea, 2015.

“Harmonizazio-marko honetan 2013ko azaroaren 12tik 15era Johannesburgon, Hegoafrikan, Dopinaren Aurkako Munduko IV. Konferentzia egin zen. Konferentzia horretan kirol antolakuntza eta estatuetako eskuordeek parte hartu zuten eta bertan Dopinaren Aurkako Munduko Kodea onetsi zen, bere hirugarren bertsioa dena eta 2015eko urtarrilaren 1ean jarri zena indarrean”.

Bidezkoketa: lehen Dopinaren Aurkako Munduko Kodea 2004. urtean onetsi zen, bigarrena 2009an eta gaur egungoa hirugarren bertsioa da. Uste dugu zentzuzkoa dela datu hori zizoen azalpenean ematea.

21. artikulua.- Administrazio-zehapen araubidearen aplikazio-eremua.

Idazkuntza berrian, 21.1. artikulua idazkuntza berria hau da:

“1. Lege honetan dopinari buruz jasotzen den arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie, bidezko den heinean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gertatzen diren egiteei edo ez-egiteei, edozein kirol-lehiaketatan edo lehiaketak ez direnetan gertatzen direla ere. Ez da beharko lotura bereziko harremanik egon dadin. Dena dela, salbuetsita daude estatuaren eremuko edo nazioarteko kirol-lehiaketen ondorioz gertatuko diren egiteak eta ez-egiteak, hots, nazioarteko kirol-federazioek edo nazioarteko erakunde olinpikoek edo olinpiada berezietakoek antolatua”.

Nahiz eta “lotura bereziko harremana” bi testuetan mantendu (aurrekoan eta aldaketaren proposamenean), hori kentzea iradokitzen dugu.

Adierazpen horrek arazo asko sortzen ditu ez duelako esanahi bakarra eta ez doktrina eta ezta epaitegiak ere ez dira ados jartzen zeintzuk diren mota horretako harremanetan dauden pertsonak. Halaber, dirudenez ez du ezer gehitzen: uste dugu esaldiaren esanahia ez dela aldatzen adierazpen hori kentzen bada.

22.bis artikulua. Behin-behineko etendura.

Artikulu honen hirugarren paragrafoaren idazkuntza era honetan osotzea gomendatzen dugu:

“3. Behin-behineko etenduraren iraupena gehienez sei hilekoa izango da, salbu eta etendura jaso duen pertsonari egozteko moduko prozeduraren gelditzea edo luzapena gertatzen bada. Hau guztia gorabehera, kirolariaren behin-behineko etenduraren aldia ezarriko zaionetik edo onetsiko denetik kenduko da.”

Bidezkoketa: Dopinaren Aurkako Munduko Kodeko 7.9.2. artikulua ezarri duenarekin bat dator. Atal horrek hitzez hitz honela dio: *“kirolariaren behin-behineko etenduraren aldia 10.11.3 edo 10.11.4 artikulua arabera behin betiko ezarriko zaionetik edo onetsiko denetik kenduko da”.*

Inguruabar hori zenbatesten ez bada gerta daiteke amaieran pertsona kirolariak zigor bikoitza jasotzea, gerta daitekeelako kautelazko etendurari behin betiko beste etendura bat gehitzea. Analogiaz, amaierako zigorretik kentzen diren kartzela prebentziozko espetxealdiak hartu behar dira kontuan.

23. artikulua.- Arau-hausteen tipifikazioa.

1.m) atal berriaren idazkuntza era honetan osotzea iradokitzen da:

“m) Dopinaren aurkako arau-hausteei edo arau-hausteak egiteko era guztietako ahaleginei lotuta dauden laguntzeko, sustatzeko, bultzatzeko, eragiteko, konspiratzeko, estaltzeko edo intentzios egiten diren bestelako era guztietako ekintzak.”

Bidezkoketa: proposatu den idazkuntza zabalagoa eta zehatzagoa da proposatutako testuan agertzen ez den intentzionalitatearen elementua gehituta. Dopinaren Aurkako Munduko Kodeko 2.9. artikulua jaso da hitzez hitz, “Konplizitatea”, errubrika duena eta hitzez hitz honela esaten duena *“dopinaren aurkako arau-hausteei edo arau-hausteak egiteko era guztietako ahaleginei lotuta dauden laguntzeko, sustatzeko, bultzatzeko, eragiteko, konspiratzeko, estaltzeko edo intentzios egiten diren bestelako era guztietako konplizitateak edo beste edozein pertsonak 10.12.1. artikulua urratzea”*.

Dopinaren Aurkako Munduko Kodeko 10.2.3. artikulua ezarri du *“10.2 eta 10.3. artikuluetan ezarri denarekin bat intentzionalitatea terminoa iruzurra egiten duten kirolarientzat erabiltzen da”*. Horregatik, uste dugu egokia dela Lege berrira inkorporatzea, areago kontuan hartuta intentzionalitateak zehapen handiagoak eragiten dituela.

V.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABren ustez “Dopinaren aurkako legeria Dopinaren Aurkako Munduko Kodeari egokitzeari buruzko Legearen Aurreproiektuaren” tramitazioa egokia da aholku organo honek egin dituen iruzkinekin.

Bilbon, 2015eko irailaren 25ean.

O.E. Presidentea

Francisco José Huidobro Burgos

Idazkari Nagusia

Emilia Málaga Pérez